

Mahai negoziatzailea 21/11/16**ELA, UGT eta CCOOK uko egin diote bigarren aldiz sukalde eta garbiketako Lan hitzarmenaren negoziatioari****Negoziatio-mahaiaren osaeraren proposamena eta egutegia**

Atzo, Sukaldari eta Garbitzaileen mahaiaren, lehenengo puntuan Lan Hitzarmen berriaren negoziatio-mahai osatzeko proposamena bazegoen ere, gure harridurarako gainerako sindikatuek berriz ere geldiarazi zuten prozesu negoziatzailea abiatzeko aukera.

LAB sindikatuak, mobilizazio dinamika luze eta arrakastatsuen ondorioz, 2018an hezkuntza publikoko kolektibo guztietako akordioak sinatu zituen. Harrezkero Lan hitzarmenaren negoziatio irekitzea eskatu zuen, eta orduko akordioak prozesu negoziatzaileen oinarriak dira gaur. Gezurra badirudi ere, ordea, gainerako sektoretan prozesuak aurrera darraiten bitartean, kolektibo feminizatu, adinekoen eta prekarieztatuenaren lan hitzarmenaren negoziatioaren hasiera blokeatzen jarraitzen dute ELA, UGT eta CCOO sindikatuen ordezkariak.

EAEko Hezkuntza sailak bi aldiz jarri ditu mahai gainean lan hitzarmen berriaren negoziatioarekin hasteko proposamenak eta egutegia – bat aurreko ikasturtean, eta bestea, atzo-, baina ELA, UGT eta CCOOK eskaintzari uko egin diote. Beraien aitzakia da kolektibo honen LEPa negoziatu nahi dutela lan hitzarmena berri baina lehen. LAB Sindikatuarentzat langileentzako kontsolidazio prozesua bezain urgentea da lan hitzarmena berrikoa, eta bi prozesuak paraleloan jorratu behar dira.

LAB sindikatuak gogora ekarri nahi duenez, EAEko hezkuntza publikoko kolektibo guztietan —irakasleak, heziketa berezia eta Haurreskolak Partzuergoan— egoera berdina ematen bada ere, hau da behin behinekotasunarekin bukatzeko neurri negoziatioak behar badira ere, mahaiak eratu dira eta gai biak mahai gainean daude, negoziatioak motel edo bizkorrago badoaz ere.

Sukalde eta garbiketaren, besteak beste, lan-zamak arintzea, gazte-berriko planak, lan osasuna zaintzea, funtzioak zehaztea, formakuntza hobetze eta langileen lan-baldintzak hobetuko lituzkeen beste neurrien negoziatioari mugak jartzen dizkiote aipatutako sindikatuek, 2009tik berri baina gabe dagoen hitzarmenarekin jarraitzea kondenatuz langileak.

LEPa

Administrazioak behingoz argitu digu nolakoa izango den hurrengo LEPa:

- Lanpostuen estabilizazio prozesua izateko 2022eko ekainaren 1a baino lehen, LEParen plazen kopuruaren eskaintza egingo dute. 400 inguru izango direla esan dute, LAB sindikatu gehiago izateko proposamena egingo du.

- Merituen lehiaketa bidezko prozesua izango da, azterketarik gabea. Parte hartzeko gutxieneko baldintza eskolaratze ziurtagiria aurkeztea izango da. LABek gainontzeko merituen baremazioa negoziatzea eskatu du, kolektiboaren ezaugarrietara egokituta: langileen adina, antzintasuna, euskara zein bestelako titulazioak.

Deiak kudeatzea: Ordezlagunea

Ordezkapen guztiak betetzeko dagoen arazoari irtenbidea emateko, hezkuntzako gainerako langile publikoen gainerako kolektiboetan bezala, gure kolektiboan ere ordezkapenak betetzeko aplikazio telematikoa ezartzea proposatu dute. 2022-23 ikasturtean jarri nahi dute martxan kolektiboari egokitutako egokitzapena egin behar dituztelako aplikazioan. Proposamena helaraziko digute ekarpenak egiteko. LAB sindikatuak begi onez ikusten du proposamena gardentasuna eta azkartasuna ematen diolako ordezkapen banaketari. Beraz, ekarpenak egingo ditugu.

Garbitzaile eta sukaldarien birbaremazioa

2021eko abenduaren 10ean argitaratuko da deialdia.

Aldaketak egiteko epea: 2021eko abenduaren 13tik 2022ko urtarrilaren 10ra (biak barne):
<https://irakaslegunea.euskadi.eus/eu/>

Atezain gisa emandako zerbitzuak garbitzaileen zerrendan zenbatuko dituzte, 2016ko irailaren 1etik emandako zerbitzuak ofizioz barematuko dituzte eta, LABek egindako eskaerari kasu eginez, data hori baino lehenago emandako zerbitzuak norberak aurkeztu beharko ditu zenbatu ahal izateko.

**Zalantzak badituzue jarri gurekin harremanetan.
ANIMO ETA AURRERA !!!**

<https://irakaskuntza.lab.eus/>

<https://irakaskuntza.lab.eus/sutaqar/>

 **LAB Sukalde eta Garbiketa**